# MUNGIARRA

MUNGIA UDALA

www.mungia.org

## Kultura
Udal Liburutegiak ordutegi barria dauka

## Ingurumena
*Mungia Garbi* izeneko atal barri bat web-orrian, guztion eskura

## Garraioa
Urdulizko Ospitalera joateko A3531 autobus-linea (Sopela-Mungia-Gatika)



# HAZ:
# Herritarren Arreta Zerbitzua gertu, erraz eta leku baten



MUNGIA GARBI
GUZTION ARDURA



55

octubre 2016ko urria



Ager Izagirre: Mungiako alkatea

Kaixo mungiarra:

Beharrean jarraitzen dogu, baina Hauteskunde kanpainak dirala eta, ezin izan dogu aldizkari hau arinago banandu. Ea aurrerantzean arlo horretan gauzak lasaitzen diran eta zuongana sarriago hurbiltzeko aukera daukagun.

Ohi dan lez, egiten dogunetik gauza azpimarragarrienak azalduko deutsueguz berton. Badakigu oraindik behar handia daukaguna aurretik, eta batzuetan, geuk gura izango geunkean erritmoa hartzea kostetan jabilkula, baina inork bere ez euskun esan hau erraza izango zanik, beraz, aurrera.

Esku artean daukazuezan barrien artean laster martxan jarriko dogun Herritarren Arreta Zerbitzu barria daukagu. Udalean urteak daroaguz etenbako hobekuntza prozesu baten barruan aurrera egiten, eta orain beste pausu garrantzitsu bat emongo dogu. Hain zuzen bere, herritarrari gauzak errazteko asmotan, mungiarra, pertsonak diralako gure lehentasuna, jendaurreko zerbitzua hobetuko dogu. Horretarako Udaleko langile guztien inplikazinoa beharrezkoa izan da eta izango da, beraz, gure partez eurentzat gure eskerrik onenak.

Beste alde batetik, "hiritartasun kanpaina" bat bere abian jarri dogu. Izan bere, Udalean gabilzanon ardurea da gure kaleak, eraikinak, parkeak, bankuak, zerbitzuak eta abar ganoraz mantentzea, baina horretan, guztiok daukagu zeregina. Herri garbia eta segurua daukagu, guztion artean ondo jagoten dakiguna. Jarraitu daigun,ba, bide horretan, eta egin daigun bakotxak geure esku dagoan guztia holan izaten jarraitu daian.

Besarkada bat.

Ager Izagirre Loroño
Alkatea

Kaixo mungiarra:

A pesar de que a causa de las campañas electorales no hemos podido haceros llegar esta revista antes, esperamos acercarnos a vosotras y vosotros más frecuentemente a partir de ahora.

En este *Mungiarra* os explicamos los trabajos más destacados de entre los que estamos realizando. Así, conoceréis el Servicio de Atención Ciudadana que facilitará las cosas a la mungiarra, al mungiarra, a la persona, porque esa es nuestra prioridad.

Por otra parte, hemos puesto en marcha una "campaña de civismo". Tenemos un pueblo seguro y limpio, y sabemos cuidarlo. Sigamos ese camino y que cada una de nosotras y nosotros haga lo que esté en su mano para mantenerlo así.

*Ager Izagirre Loroño*

# Herritarren Arreta Zerbitzuko bulego barria, herritarrengandik parajeago

## Nueva oficina de Servicio de Atención Ciudadana (SAC):

Las y los mungiarras tendremos, antes de fin de año, un nuevo espacio donde realizar los trámites administrativos municipales de manera rápida y sencilla: la oficina de Servicio de Atención Ciudadana (SAC).

El SAC tiene el propósito de acercar más los servicios municipales a la ciudadanía y de facilitar las consultas, la presentación de documentos y la realización de gestiones municipales.

**Todas las tramitaciones del área de Cultura y Deportes que hasta ahora se gestionaban en Agirre Jauregia pasarán a tramitarse en el SAC.**

Actualmente se está reformando el local de los bajos del Ayuntamiento para ubicar el SAC. Estos trabajos cuentan con un presupuesto de 98.180€.




Gaur egun, Udaletxeko arkupeetan lehen Alkartasuna-Concordia aretoa zana egokitzen dabilz HAZ bulego barrirako.

### Orain arte Agirre Jauregian tramitatzen izan diranak bere bertan egingo dira

**Udalaren eta herriaren arteko tratua hurbilagoa izateko aurrerapauso bat emongo da tresna honen bitartez.**

Udaleko zerbitzuak eta herritarren arteko lotura gero eta hurbilagoa izateko helburuagaz, mungiarrok Udaleko administrazino-tramitazinoak arin eta erraz burutzeko gune barri bat eukiko dogu urtea amaitu baino lehen: Herritarren Arreta Zerbitzuko (HAZ) bulego barria.

**Orain arte Agirre Jauregian bideratu diran Kultura eta Kirol arloko tramitazino guztiak HAZen kudeatuko dira aurrerantzean.**

Herritarren Arreta Zerbitzuak Udala eta herriaren arteko hartu-emona sendotzen dau eta kontsultak, dokumentuen aurkezpenak eta Udaleko gestinoak erraztea da bere helburu nagusia. Horri esker, sortzen diran zalantzak edo kontsultak era erosoagoan konpondu leitekez.

Bulego barri horretan egongo diran langileak prestakuntza-ikastaroak jasoten dabilz, leihatila bakarrekoa izango dan zerbitzu horretan behar egiteko. Gaur egun, HAZ bulegoa izango dan Udaletxeko arkupeetako lokalean hasita dagoz egokitze-obrak egiten, azpiegitura informatikodun gune argi eta publikoa izateko. Obra horreek egiteko aurrekontua 98.180€-koa da.

## Facilitando los procedimientos con el manual de trámites

Presentamos un manual de trámites en formato papel y digital con el que las y los mungiarras conocerán las gestiones que podemos realizar en el Ayuntamiento, cómo se hacen, qué documentación es necesario presentar, cuáles son los plazos y otros condicionantes legales. Esto permitirá agilizar los procedimientos y aportar una mayor transparencia de la labor municipal.



# Gurutze Gorriaren ikastaroa Etxeko Lehen Sorospenetarako



Este programa recibió el *Premio Nagusi 2011* otorgado por el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

Jagoten

**Mendeko pertsonei laguntzeko pentsatu dan ikastaroak harrera ezin hobea izan dau**

Jagoten programaren barruan, *Lehenengo sorospenak* deituriko prestakuntza ikastaroa egin zan joan dan bagilean; programa horren helburua, mendekotasuna daukien edade guztietako pertsonen autonomia sustatzeko eta horreen jagoleei laguntza psikosoziala emotea da. Ikastaroaren helburua etxeko lehen laguntzen ganean daukiezan ezaguerak lantzea eta indartzea izan da, batez bere mendeko pertsonei laguntzeko arloan.

Ikastaroa ordu biko hiru saiotan emon eban Mungialdeko Gurutze Gorriak bere lokaletan. Hamalau lagunek hartu eben parte eta ikastaroaren ganean egin eben kurtso amaierako balorazinoa sano ona izan zan.

Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateak eta Mungialdeko Gurutze Gorriak kurtso hau batera antolatzen daben bigarren aldia da.

Dentro del programa *Jagoten* de atención a la dependencia en el ámbito familiar, el pasado junio catorce personas tomaron parte en un curso de formación sobre primeros auxilios en el hogar, centrado especialmente en atender a personas dependientes.

## Acercando generaciones a través de manualidades y experiencias

Alumnas y alumnos de Mungia visitan a las personas usuarias de la residencia y centro de día San José Etxe-Alai

Uno de los objetivos del programa *Jagoten* es favorecer la modificación de ideas, creencias y atribuciones existentes en la sociedad en lo relativo a las personas dependientes, la dependencia, el cuidado y la familia. Así, desde el 2009 se celebran en la residencia y centro de día San José Etxe-Alai los encuentros intergeneracionales, donde el alumnado de 1º de la ESO comparte la mañana con personas mayores, realizando manualidades e intercambiando experiencias. Este año más de 150 adolescentes de Bentades Ikastetxea, IES Mungia y Larramendi Ikastola han tomado parte en esta iniciativa. Tras la visita, el alumnado participa en un concurso de dibujos que reflejan la experiencia vivida.Tanto autoras y autores de los mejores trabajos como las personas mayores participantes reciben un premio.

# Abendutik aurrerako Gizarte Zerbitzuen prestazio eta zerbitzuen zorroa

Gizarte-Zerbitzuen Euskal Legearen katalogoan ezarrita dagozan eskubide subjektiboak, hau da, auzitegien aurrean eskatzeko modukoak diranak, bermatuko dabez euskal administrazino publikoak abenduaren 25etik aurrera.

Katalogo horrek zerbitzu eta prestazinoen zorroa arautzen dau, populazio hartzailea mugatuta eta sarbide-baldintzak eta prozedura-antolamenduak zehaztuta, besteak beste.

Horren ganera, 2016-2019ko EAEaren Gizarte-Zerbitzuen Plan Estrategikoak zerbitzuen mapa egituratu dau.

Horretarara, **oinarrizko zonaldean** informazinoa, balorazinoa, diagnostikoa eta orientazino zerbitzuak emango dabez; **erdi-mailako eremuan** larrialdi eta etxeko indarkeriari lotutako kasuetarako zerbitzuak eta, amaitzeko, **eskualde mailak** baliabideak izan beharko ditu, kasurako, baztertze-arriskuan dagozan pertsonentzako babeseko etxebizitzak.

Mungia Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitateko kidea da Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz eta Meñakako herriakaz batera. Mankomunitate honek osatuko dau oinarrizko zonaldea. Eremu mailan Fruiz, Gatika eta Maruri-Jatabegaz batera emongo ditu zerbitzuak eta eskualdean, barriz, esandakoen ganera, Erandio, Leioa eta Txorierriko Mankomunitateagaz batera.

Las administraciones públicas vascas garantizarán el acceso a las prestaciones y servicios que se incluyen en la **cartera de prestaciones y servicios** a partir del 25 de diciembre de 2016. Asimismo, trabajarán conjuntamente para lograr el funcionamiento del mapa de servicios sociales.

# Gazteen konfliktoen aurrean jokatzeko, irakasle eta familientzako tailerrak

Mungialde Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Adikzinoak prebenitzeko zerbitzuak, Mungiako Institutuagaz batera, abian jarri dau DBH, Batxiler eta Heziketa Zikloetako irakasleei aholku eta prestakuntza programa bat.

Helburua irakasleari gogoeta, aholku, formazino eta baliabideen espazio bat emotea da, ikasleek agertzen dabezan arazo batzuen aurrean, droga-kontsumoa edota beste egoera batzuen aurrean, jokatzeko.

**Irakasle guztiek, guztira 90 lagunek, egingo dabe programa hau, ordu biko lau saiotan.**

Honegaz batera, gurasoen alkarteagaz alkarlanean, familiakaz bere bideratuko da formazino hori, batez bere bigarren hezkuntzako gazteak daukiezan familiakaz. Nerabezaroa, mugak eta agresibidadeagaz loturiko hiru hitzaldi egingo dira, baita familiako gatazketan entzutea estrategia bezala erabilteko 4 saioko tailer bat.

# Cuidemos Mungia entre todas y todos

En los próximos meses se llevará a cabo una campaña de sensibilización con el fin de promover conductas cívicas que ayuden a mejorar la convivencia y preservar el patrimonio urbano y natural. Para ello se desarrollarán diversas acciones:

- **Talleres de sensibilización** con el alumnado de Educación Secundaria, con el objetivo de inculcar recomendaciones para lograr una mejor convivencia en nuestro pueblo.
- Crear un **slogan y un logotipo** con el mismo alumnado que englobe las iniciativas que se lleven a cabo en este ámbito para que la ciudadanía lo vaya interiorizando.
- **Colocar etiquetas a los elementos que componen el equipamiento público** indicando su precio y el costo de solucionar los problemas ocasionados por los actos vandálicos.
- **Elaborar una publicación** en la que se recoja una serie de **buenas prácticas cívicas**.

Danon arteko alkarbizitza hobetzeko asmoz, ekintza desbardinak bideratuko dira: gazteentzako tailer zibiko eta kreatiboak, praktika zibiko eredugarrien argitalpen bat eta ekipamendu publikoaren elementuek daukien balioaz jabetzeko eta kontzientzia hartzeko, prezio-pagatinea jarriko jake.

# Bitxikiak Alkartea, Lapikoko Solidarioen jaia eta Gamiz-Fikako Udala, danak familia behartsuei laguntzeko lanean



**Elikagaien Bankuari donazinoak egin deutsiez hirurek**

Bitxikiak Alkartea, Lapikoko Solidarioen jaia eta Gamiz-Fikako Udala, danak familia behartsuei laguntzeko lanean.

Este año el programa Banco de Alimentos que se desarrolla en la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales ha recibido un donativo de comida de la Asociación de Coleccionistas Bitxikiak y donativos económicos de 275 y 4.250 euros del Ayuntamiento de Gamiz-Fika y la iniciativa "Alubiada solidaria", respectivamente.

# Mungia a favor del Sahara

**Niñas y niños saharauis han pasado la época estival en nuestro pueblo**

Un año más, a través del Programa *Vacaciones en Paz* dirigido por la Delegación del Frente Polisario en Euskadi, tres menores de edad provenientes de los campamentos de refugiados de Tindouf han sido acogidas por familias de nuestro pueblo durante los meses de verano.

**Llegaron a Mungia el día 30 de junio, y regresaron a los campamentos el día 30 de agosto.**

El citado programa permite que la juventud saharaui abandone, por unos meses, la cruda realidad de los campamentos de población refugiada, donde vive este pueblo exiliado desde 1975 en extremas condiciones de vida.

En los últimos años, el número de familias acogedoras ha descendido notablemente. Por ello, y con el fin de que el número de menores que tengan la posibilidad de salir de los campamentos sea el mayor posible, desde hace cinco años se viene desarrollando el proyecto *Bakeleku* mediante el cual 30 niñas y niños pasan el verano en un albergue en Orduña, donde personal especializado se ocupa de su cuidado y cuentan con el apoyo de las asociaciones de familias acogedoras de todo el Territorio.



Disfrutaron recorriendo Izenaduba Basoa y aprendiendo sobre nuestra cultura mitológica.

Este año, al igual que los dos anteriores, al recibimiento de las personas llegadas a nuestro pueblo, se invitó también a las niñas y niños saharuis del proyecto *Bakeleku*. Pudieron disfrutar de una visita a Izenaduba Basoa, seguido de una merienda.

Aurten bere Mungiarrek Sahararrei euren aurpegi solidarioa erakutsi deutsie, Afrikako herri horretako errefuxiatuen kanpamenduko hiru neska-mutil udako hiletan etxean hartuta. Urduñako aterpetxean egon diran Saharako beste umeakaz batera Izenaduba Basoa eta bertako mitologia-gaiak ezagutu dabez.

# Errefuxiatuei laguntzeko Kanpaina

Maiatzaren 9tik 20ra giza materialen batze kanpaina bat egin zan Greziako kanpamentuetako errefuxiatuei laguntzeko.



Bagilean atseden barik ibili dira boluntarioak lanean anbulatorio zaharrean jarritako biltegietan; material guztia sailkatu, txukundu, kutxetan sartu, inbentarioa egin eta hori bidaltzeko paletak prestatu eta prezintetan.





A raíz de esta iniciativa ciudadana se ha creado la plataforma ELMUBA compuesta por una quincena de personas, quienes, con el apoyo de más de 80 personas voluntarias y la colaboración del Ayuntamiento, se han ocupado de organizar y coordinar esta campaña.



Gerrearen erruz, Sirian eta errefuxiatuen kanpamentuetan dagoan egoera larria ikusita, materialaren parte bat Greziako Scaramagas eta Elleonas kanpamentuetara bidaltzea erabagi zan, eta beste bat Siriara.



Desde el Consistorio se ha colaborado económicamente para afrontar el coste del envío del material y ha puesto a disposición diversos recursos e infraestructuras, tanto humanas como materiales.

Os queremos mostrar nuestro más sincero agradecimiento a todo el voluntariado, a las asociaciones y empresas, al grupo de Protección Civil y a todas las personas que se han volcado en ayudar en esta iniciativa y han hecho posible llevarla a cabo. La respuesta del pueblo de Mungia ha sido, una vez más, ejemplar.

Próximamente se realizará una presentación con fotografías con el fin de que podáis ver el buen resultado de este proyecto humanitario.

Hau da Greziara 34 paletetan eta Siriara 28 paletetan bidalitako materiala:

- Janariak (arroza, egoskariak, pastea, umeentzako potitoak, zerealak, umeentzako esnea, hegalabur-latak, sardinak, muskuiluak, orioa, gatza, azukrea, kakao hautsa, esne hautsa, gailetak…)
- Osasun-materiala.
- Oihalak, konpresak, tanpoiak.
- Higiene materiala: gela, xanpua, xaboia, kremak, eguzki-babesa.
- Eskola materialak: pinturak, arkatzak, koadernoak, umeentzako liburuak, marrazteko liburuak, errotulkiak, kutxatilak…)
- Kanpa dendak, lo zakuak, esterilak, koltxonetak.
- Haurren karroak, hamakak, aulkiak, kapazuak, sehaskak eta abar.
- Mantak, eskuoihalak, izarak.
- Sukaldatzeko materiala: mahai tresnak, lapikoak, burruntzaliak…
- Jostailuak: mahai jokoak, ibilgailuak, panpinak, pelutxeak, baloiak, pelotak.
- Umeentzako motorrak, trizikloak eta antzekoak.
- Haurren erropea eta oinetakoak, kepisak, zapiak eta haurdunentzako erropea.
- Betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

# Juicio por el homicidio de nuestra vecina Andina Pereira



Mungiako herritarra zan Andina Pereiraren hilketaren epaiketa egin zan joan dan apirilean. Bertan, Joseba Andoni Agirre Huete kondenatua izan zen hilketaren egile moduan. 13 urteko espetxe zigorra ezarri jakon hiletaren delituagaitik, ahaidetasun-astungarria aplikatuta, eta beste 3 urtekoa ohiko tratu txarrengaitik.

**El jurado, compuesto por nueve personas, emitió un veredicto unánime de culpabilidad**

El pasado abril tuvo lugar el juicio por el homicidio, en marzo de 2014, de la vecina de Mungia Andina Reyes Pereira de Brito. Joseba Andoni Agirre Huete fue condenado como autor de los hechos a 13 años de prisión por un delito de homicidio con la agravante de parentesco y a otros 3 años por el delito de maltrato habitual.

Las nueve personas que componen el jurado emitieron un veredicto unánime de culpabilidad. El tribunal dictó Sentencia imponiendo una pena que incluye una indemnización para su familia. **La Sentencia fue recurrida por el condenado y el recurso de apelación ha sido resuelto por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco y ha ratificado en su totalidad la Sentencia emitida por la Audiencia Provincial. Ahora dispone de 5 días hábiles para anunciar, en su caso, recurso de casación ante el Tribunal Supremo.**

El Ayuntamiento ha sufragado los honorarios del despacho de abogadas que ha ayudado a la familia a sostener la acusación particular. Asimismo, ha ayudado a que el hijo y la hija de Andina recibieran una ayuda económica del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas para asistencia a las víctimas de delitos violentos.

El hermano, el hijo (de 17 años) y la hija (de 13 años) de Andina se desplazaron desde Brasil, donde viven con su abuela materna, hasta Mungia a fin de acudir al juicio. Una vez aquí, tuvieron varios encuentros con el alcalde, Ager Izagirre, y la concejala de Acción Social e Igualdad, Bakarne Egia. En uno de ellos participó asimismo Izaskun Landaida, directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer.

# Eraso sexisten kontrako kanpaina jaietan

**Taberna, txosna, jatetxe eta lonjetan indarkeriaren kontrako materialak banandu dira**

Udeagaz batera, gure jaien hasikerea bere etorri zan, ondo pasetako gogoaz beteriko lagun ugari hartzeko prest. Baina, batzuetan, ostera, jarrera matxistek markatuta geratzen dira jaiak, eta eraso sexista izatera bere heltzen dira kasu batzuetan.

Horregaitik, jaietan bere emakumeen kontrako bortizkeriaren aurkako prebentzinoan lan egiteko erantzukizuna onartuz, administrazinoak era bitako materiala banandu eban taberna, jatetxe, txosna eta lonjetan.

**Eraso baten aurrean zelan jokatu edota hori zelan saihestu geinken azaltzen daben materialak banatu ziran**

Batetik, akabuko kanpainan erabili zan kartelari emon jakon zabalkundea; kartel horretan hau irakurri leiteke: Leku honetan ez da eraso sexistarik onartuko!! Errespetuan eta Bardintasunean oinarritutako hartu-emonen alde gagoz. Jaiak izan arren, EZ beti da EZ!




Bestetik, jaiak bukatu arren, gaur egun bere establezimendu askotan jarrita jarraitzen daben kartelak. Bertan azaltzen da erasoaren aurrean zelan jokatu edota hori zelan saihestu; eta hartzaile desbardinei zuzentzen jake: emakumea, gizona, erasoa ikusten dauena edota bertan lan egiten dauena.

## Campaña contra la violencia sexista en fiestas

Para hacer frente a las actitudes machistas e incluso agresiones sexistas que pueden producirse en las fiestas, el Ayuntamiento repartió diverso material que sigue colocado en establecimientos del municipio para rechazar esas actitudes e informar sobre qué hacer en dichas situaciones.

# Berbodromoan parte hartzeko prest?

Urriaren 20an, arratsaldeko 18:30ean, Matxin plazan "Berbodromoa" egingo da. Baina zer da hori?

Jentea leku baten batu, taldeka banatu eta, hiru-lau gai emonda, euskeraz berbetan hastea. Edozein euskaldunek hartu lei parte, ikasten dabilenak (hasi barriak eta ibilbide luzekoak) zein betiko euskaldun zaharrak, ez da-eta titulurik emongo ezta kenduko bere. Baldintza bakarra egongo da parte hartzeko: berba egiteko, entzuteko eta ondo pasatzeko prest etortea.

Helburua oso argia da: herritarron arteko hartu-emonak euskeraz sortzea eta estutzea, konplejuak kentzea, geure helburuak eta lagunartea konpartitzea eta, batez bere, alkartzea.

Erronka handia da Euskeraren Aholku Batzarrak –*Mungian Euskeraz* alkartearen laguntzagaz– antolatuko dauen "Berbodromo" hau, gizarte honetan gero eta gehiago kostatzen jaku-eta geure eremu txikitik urtetea eta kanpora begiratzea. Halanda bere, batzordekideek badakie mungiar askok daukiela euskeraz bizitzeko egarria eta beharrizana, eta beraz, urriaren 20an ez dala berbotsa eta durundia faltako Matxin plazan.

Animatu zaitez, ea zenbat alkartzen garan!!!

Helburua: herritarron arteko hartu-emonak euskeraz sortzea eta estutzea, konplejuak kentzea, geure helburuak eta lagunartea konpartitzea eta, batez ere, alkartzea.

# Mungian euskeraz bizi nahi dogu!

Irailaren 30ean ehunka mungiarrek hartu eben parte Foru enparantzatik abiatu zan "Euskaraz Bizi Nahi Dut" herri-martxan.

Pasa dan barikuan, arratsaldeko zazpietan alkartu, gaztetxuen kantak entzun eta abestu ostean, zazpi eta erdietan abiatu zan herri-martxa Mungiako kaleetan zehar. Edade guztietako jendeak hartu eban parte: ume, gazte, heldu eta edadekoak, guztiak aldarrikapen beraren inguruan. Baina oinezko martxa horretaz ganera, danatarik egon zan: bertsoak (*Taket Bertso Eskolak* jarriak), kantak (ikastetxeetako ikasleen eskutik), gurasoen alkarteek irakurritako manifestua, Lauaxetxu maskota, opariak (Kontseiluak emondakoak), kamisetak salgai (*Mungian Euskeraz* alkartearen laguntzagaz), Mungiako euskaltegien ganeko informazinoa…




Adin guztietako jendearentzat pentsatutako martxa horretan euskeraz bizitzeko eskubidea eta gogoa aldarrikatu genduzan.

Legeak lege eta eskubideak eskubide, argi dago euskeraz bizitzeko daukagun tresnarik nagusiena geure konpromisoa dala. Horren jakitun, Mungiak bost urte daroaz herri-martxa hau antolatzen, eta azpimarratu beharrekoa da edizino guztietan herriko ikastetxe, talde eta alkarteek antolaketa-lanetan egin daben beharra; mungiar askok euskeraz bizi gura dogun seinale argia.

Aldarrikapena eta jai-giroa nagusitu ziran "Euskaraz Bizi Nahi Dut" herri-martxan. Egon bere, danatarik egon zan: bertso eskolak jarritako bertsoak, ikastetxeetako ikaslek abestutako kantak, Lauaxetxu maskota, kontseiluak emondako opariak, kamisetak…

# Egin kontu, bajatorku. Egin kargu, badakargu




**BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA-2016.**

Aurtengo Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren lehenengo kanporaketa urriaren 15ean, 17:30ean, izango da, Olalde Aretoan.

Urte birik behin egiten dan Bizkaiko Bertsolari Txapelketak barriro bere Mungia aukeratu dau kanporaketa-saioei ekiteko. Txapelketa honen barrikuntza nagusia Udabarriko fasea izan da, orain arte fase hori eskualdeka egiten zan, aurten, ostera, zabala izan da. Udabarrian mehazketa egin ostean, 30 bertsolari pasatu dira udagoieneko kanpoketetara. Bost kanporaketa-saioetatik eta hiru finalerdietatik aterako dira (2014ko finalistakaz batera) abenduko finalean kantatuko daben bertsolariak.

Oindino ez dakigu nortzuk kantatuko daben Mungian, baina badakigu pasatu diran bertsolarietatik bat Mungiakoa dala eta itxura baten, behintzat, aurten lehia estua egongo dala. Beraz, etorri, gozatu eta animatu bertsolariak.

Mungia acogerá una vez más la primera eliminatoria del Bizkaiko Bertsolari Txapelketa que se celebrará el 15 de octubre a las 17:30 horas en Olalde Aretoa.¡Ven a divertirte!

# *"TXIKI, TXIKI, TXIKIA"* umetxuentzako antzerki-jaialdia Mungiara etorriko da

Ez da erraza ume txikientzat apropos sortu eta egokiak diran lanak topetea, baina horixe da *Txiki, Txiki, Txikia* festibalak eskaintzen dauena. Nazioarteko Antzerki Jaialdi honek arte eszenikoaz gozatzeko aukera eskaintzen deutse umeei.



Gertu-gertutik antzeztean, umeak kanpoko ikusle moduan barik, istorioan bertan murgilduta dagoz.

Jaialdiaren hirugarren edizinoak Bizkaiko herri desbardinak bisitatuko ditu, besteak beste Mungia. Bertan Kanadako *Des Mots d'la Dynamite* taldeak antzeztutako *Là où j'habite* (Bizi naizen lekua) obra ikusi ahal izango da, ingelesez (*Where I live*). Obran, Téqui eta Teouk pertsonaiek era guztietako galdera existentzialak egiten deutsiez alkarri; eta, abestuz, jolastuz eta dantzatuz erantzuten deutsie itaunoi. Kartoi, egur, trapu eta linternen bitartez "nia" eta "bestearen" bideak esploratzen dabez.

El próximo 12 de noviembre Mungia acogerá una obra dirigida al público infantil dentro de las actuaciones del festival Txiki, Txiki, Txikia.

**Là où j'habite (Bizi naizen lekua)**
**Eguna**: zemendiaren 12a.
**Ordua**: 17:00 eta 18:30ean, txanda bitan.
**Lekua**: Olalde Aretoa
**Edadea**: 2 urtetik 5 urtera bitarteko umeentzat gomendatua.
**Ikusleak**: 140 txandako.

# Mungiako Udal Liburutegiak ordutegi barria estreinatzen dau

**Ordutegi zabalagoaren eskaintza Txiki-Txokoaren leku aldaketagaz batera egin da**

Neguko ordutegiaren aldaketagaz, mungiarrek egindako iradokizunei erantzunez, irailaren 16tik gora Mungiako Udal Liburutegiak jendaurreko ordutegi etenik bakoa eta zabalagoa jarri dau abian. Liburutegia, beraz, goizeko 09:00etatik arratsaldeko 20:00etara egongo da zabalik astelehenetik barikura.

Zapatuetan, barriz, orain artekoak jarraitu dau, hau da: 10:00etatik 13:30era arte izango dogu zabalik udal-liburutegia.

Beste alde batetik, umeen liburutegia, Txiki-Txokoa deritxona, Torrebillela Kultur Etxeko hirugarren solairutik beheko solairura aldatu da, hau da, erakusketa-gelaren eremura; hain zuzen bere, umeei emoten jaken zerbitzua erraztu eta hobetzeko.

Txiki-Txokoaren gune barri honetan, batetik, 0tik 6 urtera arteko umeentzako espazio bat prestatu da eta, bestetik, 6tik 8 urtera artekoentzat beste bat. Argazkian ikusten danez, koloredun aulki eta mahai horreetan lasai irakurteko aukera izango dabe. Kokapena dala eta, beheko solairuan egoteak erraztu egiten dau gurasoak bertara umeen-karrotxuakaz sartzea. Haurren liburutegiaren ordutegia, barriz, astelehenetik barikura, 16:30etik 19:30era, izango da.





## La Biblioteca Municipal estrena horario

Desde el 16 de septiembre permanece abierta de lunes a **viernes de 9:00h a 20:00h**, en horario ininterrumpido, mientras los sábados seguirá con el horario habitual, de **10:00h a 13:30h.** La biblioteca infantil o Txiki-Txokoa ha sido trasladada a la planta baja de Torrebillela y tendrá un horario de **lunes a viernes, de 16:30 a 19:30**.

**Udal Liburutegiko ordutegia:**
- Astelehenetik barikura 09:00etatik 20:00etara
- Zapatuetan 10:00etatik 13:30era

**Txiki-Txokoa:**
-Astelehenetik barikura 16:30etik 19:30era

# Mungia acoge los Hemendik Sariak en su novena edición




Las Hermanas franciscanas del Buen Consejo fueron premiadas con el Hemendik Saria en la pasada edición de 2015 *(argazkia: Deia).*

Olalde Aretoa se vestirá de gala para acoger la novena edición de la entrega de los galardones 'Hemendik Sariak' de Mungialdea. La cita se celebrará el próximo 27 de octubre a las 20:00 horas y busca reconocer el trabajo, dedicación y constancia de diversas personas, entidades y asociaciones de la comarca.

El periodista Xabier Lapitz será el encargado de conducir el acto en el que trece personas serán galardonadas. Personas que recibirán el calor, reconocimiento y homenaje de su gente. Entre las personas premiadas de la comarca, tres serán de Mungia.

## Mungiak Hemendik sariak jasoko ditu bere bederatzigarren edizinoan

Olalde Aretoak Hemendik Sarien bederatzigarren edizinoa jasoko dau urriaren 27an, arratsaldeko 20:00etan. Sari horreen bitartez eskualdeko pertsona, entidade eta alkarteen lana eta dedikazinoa aitortu gura da.

Xabier Lapitz kazetariak gidatuko dauen ekitaldian eskualdeko hamahiru pertsona izango dira sarituak eta beste hiru Mungiakoak izango dira. Sarituek inguruko jendearen beroa eta esker ona jasoko dabe.

# Mungia bere auzoakaz

Udalak argi dauka Mungiako auzoek herriaren parte sano garrantzitsua dirana. Hori dala eta, ahalegin handia egiten dau auzoak ondo mantentzeko eta euren hobetze-prozesuan aurrera pausuak emoteko.

Mungiako auzokideek daukiezan beharrizanak asetzeko lan ugari egin dira auzoetan. Hona hemen obra bakotxerako bideratu dan aurrekontua.

## Mungia con sus barrios

Desde el Ayuntamiento sabemos que nuestros barrios conforman una parte importante de nuestro municipio. Por eso, estamos desarrollando un gran esfuerzo para mantener y llevar adelante el proceso de mejora de nuestros barrios.

Se han acometido muchos trabajos con el fin de cubrir las necesidades de vecinas y vecinos que viven en los barrios. Aquí están los presupuestos dirigidos a cada obra:

## UMEENTZAKO JOLAS-GUNEAK EGITEKO OBRAK
## OBRAS DIRIGIDAS A CREAR ESPACIOS DE JUEGO INFANTIL





Larrauriko auzoko eskoletan umeentzako jolasak jarri dira aurtengo bagilean. Horretarako 10.000 euroko aurrekontua erabili da. Horren ganera, eskoletan kanastak eta futbol-ateak barriztuteak 2.000 euroko aurrekontua izan dau. Garagarrilaren hirugarren astean hasi ebezan lanok hile bukaerarako amaituta egon ziran.

La colocación de juegos infantiles en las escuelas de Larrauri han contado con un presupuesto de 10.000 euros. Las obras se han llevado a cabo en junio. Por otra parte, para el trabajo de renovación de canastas y porterías en las escuelas se han destinado 2.000 euros.





Emerandoko auzoan bere, ermitaren ondoan jarritako jokoakaz, hobetu egin dira bertako umeentzako jolas-guneak. Bagilean egindako lan horrek 11.200 euroko kostua izan dau.

El barrio de Emerando también ha visto mejorado su oferta de ocio infantil con la colocación de juegos junto a la ermita. Este trabajo, desarrollado en junio, ha tenido un costo de 11.200 euros.

# ASFALTATZE-LANAK ETA BIDEETAKO ZULOEN KONPONKETA LANAK

# TRABAJOS DE ASFALTADO Y ARREGLO DE BACHES EN LAS CARRETERAS

Atxuriko auzoak asfaltatze lanak behar izan dauz Errota eta Estraza bideetan. Hori dala eta, maiatzean hasi eta bagilean bukatutako lanotan 12.500 euroko kostua izan daben lanak egin ziran bideak hobetzeko.

El barrio de Atxuri se vio mejorado con las reparaciones de baches en sus caminos de Errota y Estraza. Las obras, que contaron con un presupuesto de 12.500 euros, comenzaron en mayo y finalizaron en junio.





Lan txikirik ez dago, eta Markaida bidean eginiko asfaltatze-obran ezagun da hori. Bagilean egin ziran hobekuntzak 3.000 euroko aurrekontuagaz egin ziran.

El barrio de Markaida muestra un aspecto renovado en su vía principal con el trabajo de asfaltado realizado el pasado junio, con un presupuesto de 3.000 euros.



Birlen bere hobetu egin dira bideak, hain zuzen bere, poligonoaren sarreran eta Karmelo Etxegarai bidean egindako zuloen konponketen bidez. Maiatzean egin ziran lanok 12.500 euroko aurrekontua izan dabe.

Billela también ha visto mejorada su accesibilidad con las reparaciones en los baches de la entrada al polígono y en el camino de Karmelo Etxegarai. Las obras, que se ejecutaron en mayo, contaron con un presupuesto de 12.500 euros.



Elgezabal auzoan bere asfaltatze lanak eta bideetako zuloetako konpontzeko beharrak burutu dira joan dan urteko abenduan. Horri esker, Kipuzti bideak itxura ederra hartu eban, 7.000 euroko aurrekontua izan dauen lanaren ostean.

Elegezabal fue otro de los barrios que vio mejorado su accesibilidad y aspecto con la obra realizada el pasado diciembre. El camino de Kipuzti fue reparado con un presupuesto de 7.000 euros.

# Construyendo un Mungia sostenible

El pasado julio se firmó un convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Mungia para la prestación del servicio de preparación para la reutilización de las fracciones de residuos domésticos de pequeño tamaño, es decir, del contenedor blanco.

**El contenedor de la reutilización aglutina la recogida de textil, zapatos y complementos además de todos aquellos objetos que la ciudadanía consideren que se pueden reutilizar como libros, juguetes, pequeños aparatos eléctricos y electrónicos y objetos de bazar.**

El Ayuntamiento se hará cargo del pago del precio público establecido por el tratamiento de preparación para la reutilización y también de autorizar la utilización del espacio público para la instalación de contenedores. A cambio, recibirá el servicio de recogida, mantenimiento y en su caso de reposición de contenedores sin ningún coste añadido. Los servicios de recogida serán prestados por la sociedad GARBIKER A.B. S.A.

**El servicio engloba la gestión de los materiales, desde su recogida hasta su posterior clasificación y tratamiento para su reutilización de una forma medioambientalmente sostenible y ecológicamente responsable.**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Mungiako Udalak etxeko zaborren berrerabilpenaren kudeaketarako akordioa sinatu eben garagarrilean. Horretarako ezarrita dagoan prezio publikoa ordainduko dau Udalak, eta, ganera, edukiontziak instalatzeko eremu publikoa erabilteko baimena bere emongo dau. Horren truke, Garbiker AB, sozietate publikoak edukiontzi zurira doazen objektuak sailkatu eta tratatzeko zerbitzua eskainiko dau, era ekologiko, arduratsu eta zentzuzkoan ingurumenari begira. Horretara, edukiontzion karga batu, edukiontzien mantentze-lana egin eta, beharrezkoa izan ezkero, edukiontzi barriak jarriko dira, Udalarentzako kostu gehigarri barik.

# Beste pauso bat zentzuzko garapenaren bidean

**Mungiako Udala Euskal Adierazpenagaz konprometitu da**

Joan dan apirilaren 27an aurkeztu zan Euskal Adierazpena. Honen helburua Europako herri eta hiriek zentzuzko garapenean aurrera egitea da. Mungiako Udalak, gure herriak, aurrera egiteko eta zentzuzko garapenaren bidean dagoan herria izateko ideiagaz, adierazpen horregaz bat egin dau; hau da: *Euskal Adierazpena - Bide Berriak Europako Hiri eta Herrientzat, hiri produktibo, jasangarri eta erresilienteak sortuz, bizitzeko egokia den Europa inklusibo batentzat*

Euskal Adierazpen honek, bere 15 puntuen bidez, eskualdeko gobernuek, Europako eta nazioarteko erakundeek, organismo aldeaniztunek, ikertzaile komunitateek, sektore pribatuek eta sozietate zibilak egin leikien bidea markatzen dau. Mungiako Udalak bere gure gizarteetan aldaketa teknologikoa, sozioekonomikoa eta soziokulturala egiteko beharrizana dagoala onartzen dau, hain zuzen bere herritarrentzako bizi-kalidade duina bermatzeko helburuagaz; aldi berean, tokiko ekosistemen eta ekosistema globalen mugak eta eskuragarri ditugun baliabide naturalak errespetatuta. Horregaitik, bat egin dau hitzarmen honegaz.

La Declaración Vasca, que se ha presentado en la jornada inaugural de la 8ª Conferencia Europea de Ciudades y Pueblos Sostenibles, incluye un total de 15 formas de apoyar y acelerar transformaciones socio-culturales, socio-económicas y tecnológicas que garantizan la calidad de vida a la ciudadanía, respetando los ecosistemas locales y globales y los recursos naturales disponibles. Este camino está dispuesto para que lo sigan los gobiernos regionales, instituciones europeas e internacionales, organismos multilaterales, miembros de la comunidad investigadora, sector privado y sociedad civil. Desde el Ayuntamiento de Mungia nos hemos sumado a esta declaración con el propósito de construir un pueblo más sostenible.

**Bere 15 puntuen barnean, Euskal Adierazpenak, besteak beste, hurrengoko beharrak aitortzen ditu:**

- Gure energia sistemak deskarbonizatzea.
- Hiri-mugikortasun iraunkorreko ereduak sortzea.
- Biodibertsitatea eta zerbitzu ekosistemikoak babestu eta sustatzea.
- Ur-baliabideak eta ur zein airearen kalitatea babestea.
- Klima-aldaketara moldatzea.
- Esparru publikoak hobetzea.
- Etxebizitza nahiko eta egokiak eskaintzea herritarrei.
- Gizarte inklusioa bermatzea.
- Tokiko ekonomiak indartzea.

# Mungia Garbi, guztion ardura



En esta nueva sección tendréis a mano todos los pasos para reciclar de manera correcta y podréis consultar todas vuestras dudas.

Desde el consistorio impulsamos medidas que tengan como fin la mejora del medioambiente, pues es responsabilidad de todas y todos cuidar nuestro municipio. Por ello, ponemos a vuestra disposición un nuevo apartado llamado *Mungia Garbi* en nuestra página web.

En esta sección encontraréis información e indicaciones sobre el reciclaje y la recogida selectiva, facilitándoos los medios adecuados para poder reciclar *residuos domésticos ordinarios no reciclables, plásticos y envases, vidrio, papel y cartón, aceite de cocina, voluminosos, textiles, calzados y objetos reutilizables, pilas, medicamentos y toallitas higiénicas* en las mejores condiciones.

**Se puede acceder a dicho apartado en la siguiente dirección electrónica: www.mungia.org/mungia-garbi**

Vuestra colaboración en el reciclado de envases y cuidado del medio ambiente es clave en la construcción de un futuro sostenible.

### Mungia Garbi, guztion ardura

Udalaren webguneak *Mungia Garbi* izeneko atal barri bat jarri dau mungiarron esku. Bertan ikusten dan moduan, hondakinak multzoka sailkatuta dagoz eta multzo bakotxeko hondakin hori era egokian birziklatzeko jarraibideak zeintzuk diran azaltzen dabe.

# Mungia es de todas y todos, las cacas de tu perro no

Nahiz eta piztien jabe gehienek arduraz jokatu, eremu publikoetan bertan behera ixten diran txakur-korotzak gero eta gehiago dirala ikusi da. Animalien jabeek euren ardurea hartu behar dabe eta herria garbi eukiteko erantzukizuna bete.

Desde el Ayuntamiento continuamos en nuestro empeño por hacer del civismo la principal seña de identidad de nuestras vecinas y vecinos y, por ello, recordamos la Ordenanza de Tenencia y Protección de animales.

**A diferencia de la creencia popular, las heces de perro no son un fertilizante, sino que son tan tóxicas como la basura humana.**

A pesar de que la mayoría de la ciudadanía procede de manera ejemplar y es responsable con sus animales de compañía, se ha detectado un aumento del número de excrementos de mascotas abandonados en la vía pública (aceras, parques y jardines).



Cuando salgas a pasear a tu mascota lleva contigo varias bolsitas. Coloca la bolsa en la mano como si fuera un guante, recoge las heces, voltéala, hazle un nudo y deposítala en la basura.



El personal operario de Lantegi Batuak trabaja a diario limpiando excrementos para tratar de mantener limpio nuestro municipio pero la responsabilidad es de todas y todos.

Este hecho es una molestia para vecinas y vecinos y, asimismo, provoca un gasto adicional para el Ayuntamiento, que pagamos entre todas y todos. Quienes posean animales deben ser responsables y recoger los excrementos de sus mascotas de los espacios públicos. Las conductas que violen la normativa municipal serán sancionadas.

Zonas donde se detectan más infracciones en la recogida de excrementos de perro:

- Espacios verdes (parques y jardines)
  - Parque Torrebillela
  - Parque Uriguen
  - Landetxo
- Asfalto
  - Calle Butroi
  - Calle Aita Elorriaga

# Urdulizko Ospitalera joateko, A3531 autobus linea





Lauaxeta kaleko geltokiaz aparte, Udalak herriaren goiko aldean beste bat jartzeko eskaria egin eban apirilean mungiarren erosotasunerako.

**Herriaren goiko aldean beste geltoki bat jartzeko eskaria egin jakon apirilean Aldundiari**

Urdulizko Ospitale barria, aurtengo bagilean era mailakatuan funtzionetan hasi zana (kanpoko kontsultak eta proba funtzionalen zerbitzuak eskainita), Mungialdeko eta Uribe Kostako eskualdeetako 19 udaletako 195.000 biztanlez arduratuko da zemenditik gora.

Bizkaibus geltoki bat egongo da ospitalean bertan, baina hori ez da erabilgarri egongo urte akabura arte; izan bere, oindino errepidearen zati bat eraikiteko dago, Urduliz eta Sopelaren arteko ordezko bidea, hain zuzen bere. **Bide barria zabaltzen dan momentuan, geltokia ospitalearen aurrean kokatuko da.** Ordura arte autobusak ospitaleko sarreratik 200 metrora itxiko dauz erabiltzaileak.

**A3531 linearen ordutegia, ibilbidea eta tarifak kontsultatzeko:http://www.mungia.org/transporte**

Autobusa bertara parajetu daiten, Sopela-Mungia-Gatika bidea egiten dauen A3531 linea daukagu. Oin, linea horrek Lauaxeta kalean dauka parada bat. Dana dala, apiriletik hasita, Udalean alkarlanean gabilz Bizkaiko Foru Aldundiagaz; herriaren goiko aldean beste autobus-geltoki bat jartzeko eskaria egin geuntson, mungiarrei Urdulizko Ospitalera joateko erabilerraztasuna bermatzeko. Foru Aldundiak eskari honen ganeko jarrera positiboa erakutsi dauanez, laster helduko jakun behin betiko erantzunaren begira gagoz.

Herriak eskaintzen dituan sarbideak erraztea bultzatzen dau Udalak eta, horregaz batera, herritarrakaz daukagun konpromisoari bere eutsi egin gura deutsagu, garraio publikoaren zerbitzua eta Mungian bizi garanon bizi-kalidadea hobetzeko ahalegin berezia eginez.

## La línea A3531 une Mungia con el Hospital de Urduliz

El Hospital de Urduliz atenderá, a partir de noviembre, a 195.000 habitantes de las comarcas de Mungialdea y Uribe Kosta. La parada de autobús frente al hospital no estará operativa a finales de año, ya que aún queda por construir el vial alternativo entre Urduliz y Sopela. Hasta entonces, la parada provisional estará a 200 metros de la entrada del hospital.

Para que desde Mungia podamos acudir al centro médico, la línea A3531 Sopela-Mungia-Gatika tiene su parada actual en la calle Lauaxeta, aunque **desde el Ayuntamiento, con el fin de poder dar respuesta y satisfacer las necesidades de vecinas y vecinos, se está trabajando conjuntamente con la Diputación Foral de Bizkaia desde el mes de abril para habilitar y disponer de otra parada de autobús en la zona alta del municipio,** con el objetivo de favorecer la accesibilidad y mejorar la calidad de vida de las y los mungiarras.

# Eginkizun askotariko beharginen lan-poltsaren prozesua aurrera doa

Desde el Ayuntamiento se ha puesto en marcha la bolsa de trabajo para reclutar personal operario de cometidos múltiples, con el objetivo de crear una bolsa para el nombramiento o contratación de personas para cubrir vacantes en la plantilla del Consistorio y de sus organismos autónomos.

Bagilean atera zan eginkizun askotariko beharginen lan-poltsa aurrera doa. Lan-poltsa hau Mungiako Udalaren edo berorren erakunde autonomoen lanpostu zerrendan, plaza gordeta daukienen aldi baterako hutsuneak gertatzen diralako, programa bereziak burutu behar diralako, zeregin-pilaketak dagozalako, erretiro partzialengatik txandakako kontratuak edo betebako plaza hutsak dagozalako edota aurreikusita ez dagoan beste edozergaitik sortzen diran hutsuneak beteteko, langileak izendatzeko edo kontratatzeko sortu da.

**Lanaldia zerbitzuaren beharrizanen arabera zehaztuko da, eta burutuko dan beharra lanaldi osokoa edo partzialekoa izango da.**

Beharginok beteko dabezan zereginen artean ondokoak dagoz: eremu publikoak jagotea, konpontzea eta mantentzea; udal-eraikin eta instalazinoetan arotz eta sarraila gaietan sortzen diran arazoei urtenbidea emotea; bide publikoak egokitzeko lanak egitea eta egoera txarrean dagozan gauzak aldatzea; kanposantuko lanak egitea eta igerilekuko instalazinoak garbitu eta mantentzea, besteak beste.



Langileek herrian antolatzen diran jarduera, jai, erakusketa eta abarretan bere lagunduko dabe, beharrezko materialak jartzen eta kentzen.

# Nuevas obras en las instalaciones del CCPI

Son muchas las personas que desean lograr nuevos conocimientos y titulaciones para salir al mundo laboral. Por ello, ante la solicitud por parte de jóvenes estudiantes de ampliar el abanico de cursos que se ofrecen en el Instituto Municipal de Formación Profesional Básica, se prevé agrandar los emplazamientos con los objetivos de:

- Ofrecer cursos homologados por parte de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo en el área de hostelería.
- Modificar el curso de mecánica de automóvil debido a la bajada de salidas laborales en este sector.
- Acondicionar las instalaciones para poder realizar acciones formativas sobre informática, que resulta más atractivo y con más salida laboral.




Situados en los pabellones 22 y 23 de Belako 2 Elkartegia, una vez superados los ciclos, el alumnado tiene acceso directo a los grados medios en cualquier especialidad.



En estos pabellones, jóvenes de 15 a 17 años sin graduado de secundaria reciben formación tecnológica y práctica gratuita.



Sukaldaritza- eta Jatetxe-arloko ziklorako bitarteko guztiak dituan sukalde profesionala daukie ikasleek.



En el ciclo de Peluquería y Estética el alumnado aprende técnicas de maquillaje, depilación, manicura y pedicura, entre otros aspectos.

# Revisión de los valores catastrales




**Se actualizarán los valores catastrales de las viviendas y se fijará un nuevo IBI**

Las Juntas Generales de Bizkaia aprobaron en Sesión Plenaria, con fecha 18 de mayo de 2016, las normas forales del Impuesto de Bienes Inmuebles y del Catastro, que permitirán que por primera vez en 40 años se actualicen los valores catastrales de las viviendas y se fije un nuevo IBI para el próximo año. En este sentido, dado el tiempo transcurrido desde la aprobación de las ponencias de los valores catastrales vigentes y los nuevos, ya que estos últimos resultan sustancialmente más elevados, **se establece una nueva configuración y determinación de los tipos mínimos de gravamen para los bienes de naturaleza urbana y rústica "mucho más reducidos"** que los vigentes, actualmente, para compensar el aumento de estos valores.

Así mismo, reseñar que la Diputación Foral de Bizkaia y con **el fin de que los nuevos valores entren en vigor el 1 de enero de 2017, comenzará a notificar a partir de septiembre dichos valores a sus titulares.** A tal fin ha diseñado una campaña de atención al público con el objetivo de proporcionar a la ciudadanía la mejor atención posible a través de tres canales: internet, teléfono y atención presencial. Este último, se llevará a cabo en Mungia en el local cedido por el Ayuntamiento a la Diputación de Bizkaia, local situado en la planta baja del Ayuntamiento de Mungia, entrando a la izquierda desde su acceso principal. En este local se atenderán las dudas, consulta o reclamaciones que plantee la ciudadanía hasta finales de diciembre.

Joan dan maiatzaren 18ko Osoko Bilkuran, KATASTROAREN ETA OHZ-ondasun Higiezinen Zergaren Arauek Batzar Nagusien oneretxia jaso eben. Horri esker, etxebizitzaren katastro-balioak gaurkotu eta datorren urterako Ondasun Higiezinen gaineko Zerga finkatu egin ahal izango dira.

OHZren Foru Arauaren barritasun nagusia hiri- eta landa-ondasunen gitxieneko karga-tasen eraketa eta zehaztapen barria da, eta, ondorioz, tasok askoz txikiagoak izango dira gaur egunean indarrean dagozanak baino, katastro-balioek eukiko daben hazkundea konpensetako.

Balore barri horreek 2017ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu daitezan, Bizkaiko Foru Aldundia jagoken titularrei balio horreen barri emoten hasiko da aurtengo irailetik aurrera. Jakinarazpenetarako bide desbardinak erabiliko ditue: internet, telefonoa eta arreta presentziala. Mungian, Udaletxearen beheko solairuan eskainiko da zerbitzu hori, ate nagusitik sartu eta ezkerretara dagoan lokalean. Bertan jasoko dira abendura arte herritarren zalantza, kontsulta eta erreklamazinoak.

# Creando empleo en la comarca

## Eskualdean lana sortzen

Mungialdea osotzen daben udalek alkarlanean jarraitzen dabe Eskualdeko Enplegu Planaren bitartez lanpostuak sortzeko. Enplegu plan honen helburua enplegagarritasuna hobetuta, langabezian dagozan pertsonak lan munduan sartuta eta Mungialdeko ekoizpen eta merkataritza sarea indartuta, krisiaren eraginak murriztea da.

**Enplegu Plan honek lana sortzea eta enpresen lehiakortasuna eta enplegagarritasuna hobetzea ditu helburu nagusiak. Berorren ildo estrategikoak eta ekintzak bultzatzeko helburuagaz, dokumentu baten jaso zan orain dala hiru urte.**

Formakuntzaren beharrizana kontuan hartuta, burututako arrandegi ikastaro bat egin zan Peñascalen bagilaren 6tik 24ra. Teoriako 75 orduei Mungia eta bere inguruko supermerkatu eta arrandegietan praktiketan eginiko beste 40 ordu gehitu behar jakez. 15 lagunek (11 andra eta 4 gizon) hartu dabe parte ikastaroan eta **euretariko hiru praktikak egin dabezan establezimenduetan hartu dabez beharrerako,** emakume bi supermerkatuetan eta 51 urteko gizon bat Bakioko arrandegi baten.



El Plan de Empleo nació hace tres años con la voluntad de recoger en un documento los objetivos, líneas estratégicas y actuaciones que permitan mejorar la empleabilidad, la generación de empleo y la competitividad de las empresas de la comarca.

Los Ayuntamientos que conformamos Mungialdea seguimos unidos con el objetivo de crear trabajo a través delPlan de Empleo Comarcal. Este busca minimizar los efectos de la crisis mejorando la empleabilidad, la inserción laboral de las personas desempleadas y el desarrollo del tejido productivo y comercial de Mungialdea.

Motivado por el análisis de este plan, dentro del programa formativo de Mungialdeko Behargintza, en junio se llevó a cabo un curso de pescadería impartido en Peñascal. Con una duración de 75 horas teóricas a las que se han sumado otras 40 horas de prácticas en diferentes supermercados y pescaderías de Mungia y alrededores, han sido 15 las personas participantes en el curso. 11 mujeres y 4 hombres de los cuales finalmente **tres personas han sido contratadas por los establecimientos donde han desarrollado las prácticas,** dos mujeres para pescaderías de supermercados y un hombre de 51 años para una pescadería de Bakio.

El Plan de Empleo nació hace tres años con la voluntad de recoger en un documento los objetivos, líneas estratégicas y actuaciones que permitan mejorar la empleabilidad, la generación de empleo y la competitividad de las empresas de la comarca.

# Mungilan ekimena sendotuz doa bere hirugarren edizinoan

**Mungialdeko Behargintzak hitzaldiz beteriko agenda erakargarria sortu dau**

Mungialdeko Behargintzaren agendan finkatuz doan Mungilan-en hirugarren edizinoa burutuko da urriaren 17tik 20ra. Mugire Txokoan aurkeztuko diran hitzaldi horreen eduki nagusiak etxeko langileak kontratatzeko araudia (enplegatzaileei eta langileei eurei zuzenduta) eta, edozein edadetako langabetuei zuzenduta, Mungialdeko Behargintzak sustatutako prestakuntza jarduerak izango dira batez bere.

Bizitza laboraleko etengabeko formazinoaren garrantzia bere landuko da, bai pretakuntza-zentroetako ikasleentzat *curriculum*-ak egiteko eta lan-alkarrizketak prestatzeko tailerrak eginez; aldi berean, Mungialdeko Behargintza lanerako laguntza-tresna bezala aurkeztuko jake. Europako Gizarte Funtsak %50ean finantzatuta dagoan HAZILAN proiektuaren lerro nagusiak zehaztuko dira, hain zuzen bere, heziketa daukien gazteei zuzenduta.

Era berean, egiaztagiri bako pretakuntza, baina lan-esperientzia handia daukien pertsonentzat esperientzia horrek daukan garrantziaz jabetzeko eta titularizazinoaren ganeko jardunaldiak eskainiko dira.

## *Mungilan* se afianza en su tercera edición

La tercera edición de *Mungilan* se celebrará del 17 al 20 de octubre en MugireTxokoa. Las charlas tratarán, entre otros aspectos, sobre la contratación de personas empledas de hogar, así como de las acciones formativas dirigidas a personas de cualquier edad en situación de desempleo.

| ASTELEHENA<br>LUNES 17 | MARTITZENA<br>MARTES 18 | EGUAZTENA<br>MIÉRCOLES 19 | EGUENA<br>JUEVES 20 |
|---|---|---|---|
| 19:00 – 20:30<br><br>Etxeko langileak kontratatzeko araudiari buruzko hitzaldia.<br><br>Charla informativa sobre contratación de trabajadoras y trabajadores de hogar. | 19:00 - 20:30<br><br>Mungialdeko Behargintzatik sustatutako prestakuntza.<br><br>Programas gestionados por Mungialdeko Behargintza. Jóvenes: Hazilan, Diputación Foral de Bizkaia (DFB), Personas desempledas: DFB, Lanbide. | 19:00 - 20:30<br><br>Bitartekaritza.<br><br>Reconocimiento de la experiencia. Formación contínua IES Mungia (Hobetuz, Lanbide). KZ Gunea. | 10:00 –11:30<br><br>Ikastetxeetako gazteei zuzendutako lanbide-orientazioa: Mungialdeko Behargintza, kurrikulumak nola aurkeztu, lan-alkarrizketak.<br><br>Orientación a jóvenes de los centros formativos: Mungialdeko Behargintza, cv, entrevistas. |

# Cursos y programas para la inserción laboral

Dirigidos a personas desempleadas menores de 30 años o con especiales dificultades de inserción

**El Ayuntamiento trabaja para insertar en el mercado laboral al colectivo de personas con dificultades especiales y en riesgo de exclusión**

Con la intención de facilitar la entrada al mercado laboral y analizada la necesidad formativa, desde el Ayuntamiento se han solicitado dos subvenciones para la promoción de la empleabilidad a la Diputación Foral de Bizkaia:

- Para personas jóvenes desempleadas menores de 30 años se impartirá el **Curso de operaciones auxiliares de elaboración en la industria alimentaria.**
- Para personas desempleadas con más de 45 años, con varios años en el paro y con especiales dificultades de inserción laboral se llevará a cabo el programa LAN BERRI donde se impartirán los cursos de **Atención socio sanitaria para personas dependientes en instituciones sociales** y de **Movimientos de cargas y almacén**. Este proyecto apoya la contratación de personas que atraviesan unas circunstancias personales complicadas, además de programas de orientación, formación grupal, formación en competencias e intermediación e inserción.

Pendientes de resolución, estos cursos se llevarían a cabo entre enero y mayo de 2017.

## Lan-munduan Txertatzeko ikastaro eta programak

Dagoan formazinoaren beharrizana aztertuta eta lan-merkatura sartzeko pausoa errazteko asmoz,enpleagagarritasunaren sustapenerako diru-laguntza bi eskatu deutsoz Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari, 30 urtetik beherako eta 45 urte baino gehiagoko langabetuentzat zuzenduta.

Hartu beharreko erabagiak hartu ostean, ikastarook 2017ko urtarrila eta maiatza bitartean burutuko dira.

# Colaborando con el sector comercial y hostelero

Con la firme intención de reforzar la actividad económica del municipio, el Ayuntamiento y Mungialdeko Behargintza han apostado por un plan formativo para profesionalizar el sector y la actualización del plan de revitalización de comercio y hostelería.

Para mejorar la competitividad y productividad del sector comercial, un año más el Ayuntamiento de Mungia y la Asociación de Comercio y Hostelería de Mungia han firmado un acuerdo para que la Oficina de Dinamización Comercial de Mungialdea, Txorierri, Sopela, Gorliz y Plentzia mantenga su sede en nuestro pueblo. Esta oficina proporciona asesoramiento especializado e impulsa procesos relacionados con la innovación, calidad y nuevas tecnologías, dando servicio gratuito a los establecimientos comerciales de la comarca.




La Oficina de Dinamización Comercial lleva a cabo diversas acciones para impulsar el comercio local durante todo el año.

Mungiak daukan jarduera ekonomikoa bultzatzeko, Udalak eta Mungialdeko Behagintzak batera egiten dabe lan merkataritza eta ostalaritzako sektoreari laguntzeko. Horreen lehiakortasuna eta produktibidadea hobetzeko, atzera bere Udalak akordio bat sinatu dau zonaldeko Merkataritzako Dinamizazio Bulegoaren egoitzak Mungian kokatuta jarraitu daian.

# Seinalizazinoa hobetuko da herrigunean

El Ayuntamiento pondrá en valor su centro comercial urbano, instalando señales en los principales cruces y accesos peatonales de los ejes comerciales. Igualmente, los aparcamientoss tendrán señales indicando el trayecto a la zona comercial e informando de la duración del trayecto peatonal.

Mungiako Udalak, bai herria eta bai bertako merkataritza-gunea garrantzitsutzat jota, eremu horretako paisaia hobetzeko ahalegina egiten dau. Horretarako, euskarriak jarriko dira merkataritzan ardatz diran kale-sarbideetan, gurutzetan eta oinezkoen sarbideetan.

Horren ganera, udaleko aparkalekuetako seinalizazino-sistemea bere hobetu gura da. Horretarako, herriko merkataritza-gunerako ibilbidea seinalizatzen daben eta oinezkoen ibilbide horreen iraupenaren ganeko informazinoa emoten daben seinaleak jarriko dira.

Proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren Hirigune programaren barruan sartzen da; Hirigune hiri merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa da. Laguntza horreen helburua euskal merkataritzarako agertoki




Leku estrategikoetan jarritako seinaleek herriko merkataritza-guneari indarra emoten lagunduko dabe.

lehiakorrago eta profesionalagoa indartzea da. Honek ahalik eta argien eta zehatzen izan behar dauz sinergiak gehitzen dabezan tresnak, bezeroen kaptazino eta fidelizazinoa sustatzen daben estrategiak finkatzeko.

# Rakel Mateo, ejemplo de superación

## Rakel Mateo, lan gogorraren eredu

Gure herrikide ezagun batek, Rakel Mateo paratriatletak, Joko Olinpikoetan parte hartzea lortu eban. Horra ailegetako, makina bat lan eta esfortzu egin ditu Mateok, baita bere garaipen-zerrendea handitu bere.

Ezkerreko hankan elbarritasun bat izan arren, bere ahaleginari, adoreari eta gainditzeko ahalmenari esker, kirol egokituko elitean sartzea lortu dau. Borrokalari nekaezin honek sakrifizio- eta adore-lezinoa emon deusku.

Mungiako Udala eta herritarrak harro sentitzen dira txapeldun honegaz; hori dala eta, asko izan ziran Torrebillela Kultur Etxean, zuzenean, Rio de Janeiron egin eban lehiaketa jarraitu ebenak.

Urriko bigarren hamabostaldian dokumental berezia estreinatuko da, tartean Mateo. Horregaitik dokumental hori Mungian eskainiko da, ondo mereziduta daukan omenaldiagaz batera.



**Proyección del documental.**
La segunda quincena de octubre traerá consigo el estreno de un documental. En él aparece la incansable Rakel Mateo y, por ello, este documental se emitirá en Mungia con su merecido homenaje.



Argazkia: Bat Basque Team

Una de nuestras vecinas más destacadas, la paratriatleta Rakel Mateo, acaba de conseguir todo un logro: participar en los Juegos de Río 2016. El camino recorrido para llegar hasta ese momento es duro pero Mateo lleva años compitiendo y añadiendo triunfos a su palmarés.

La mungiarra es una luchadora que pese a sufrir una discapacidad en su pierna izquierda, ha alcanzado, gracias a su esfuerzo, tesón y capacidad de superación, la élite del deporte adaptado. Así, la deportista ha conseguido darnos una lección de valor, sacrificio y coraje a todas nosotras y nosotros.

El Ayuntamiento y vecinas y vecinos de Mungia sienten orgullo de esta campeona. Por ello, el pasado 11 de septiembre fueron muchas las personas que estuvieron apoyándola y siguiéndola en directo mientras competía en la categoría PT-2 de Paratriatlón de los Juegos Olímpicos. Así, la Casa de Cultura Torrebillela estuvo repleta de vecinas y vecinos que, con sus camisetas amarillas de apoyo a Mateo, animaron a la tenaz atleta sin cesar. Finalmente, la mungiarra logró un Diploma Olímpico por su octavo puesto.

**Palmares de la deportista Rakel Mateo al completo:**

| | | |
|---|---|---|
| Oro | Campeonato de España duatlon (Aviles) categoría PT-2 | 2014 |
| Oro | Campeonato del Mundo duatlón categoría PT-2 (Pontevedra) | 2014 |
| Oro | Campeonato de España de triatlon categoría PT-2(Murcia) | 2014 |
| Oro | ITU WorldParatriatlonEvent categoría PT-2 (Madrid) | 2014 |
| 6ª posición | ITU World Championship categoría PT-2 (Chicago-USA) | 2015 |
| 4ª posición | ITU WorldParatriatlonEvent categoría PT-2 (Rio Janeiro-Brasil) | 2015 |
| Bronce | ETU TriathlonEuropeanChampionship categoría BrondePT-2 (Ginebra-Suiza) | 2015 |
| Bronce | ITU WorldParatriatlonEvent categoría PT-2 (Yokohama-Japón) | 2015 |
| Bronce | ITU World Paratriatlon Event categoría PT-2 (Madrid) | 2015 |
| Plata | ITU World Paratriatlon Event categoría PT-2 (Sunshine Coast- Australia)) | 2015 |
| Oro | ITU World paratriatlon Event categoría PT-2 (Buffalo City-Sudáfrica) | 2015 |
| Clasificada | Juegos Olímpicos de Rio de Janeiro | 2016 |
| 8ª posición | Diploma Olímpico en las Olimpiadas de Río de Janeiro | 2016 |

# Kirol instalazinoak hobetzen

Las instalaciones municipales deportivas se han visto mejoradas gracias a las obras llevadas a cabo en las pistas de padel. Así, se ha cerrado cada pista independientemente con un cerramiento de red, con el fin de evitar que las pelotas salgan de las pistas; también se ha colocado un acabado metálico para retener el filtrado de agua que entraba por los cristales laterales. Para estos trabajos se han destinado 15.850 euros.

Padel pista bietan egindako hobekuntzak izan dira udaleko kirol-instalazinoetan egindako akabuko lanak. Horretarako, era bitako lanak egin dira:

Alde batetik, padel pistetan itxidura indibidualak egin dira sare bidez; hain zuzen bere, pelotek pistetatik urten ez daien egin da.

Bestetik, ur-iragazteari aurre egiteko, itxitureari metalezko amaierak jarri jakoz. Izan bere, padel pista biak era partzialean estalita dagoz. Udan gerizpe eta haizetxuagaz gozatzeko aukera emoten badabe bere, euria egiten dauen bakotxean alboko kristaletatik jausten izan dan ura padel pistako lurzoru artifizialean sartzen izan da. Beheak ur hori xurgatu eta putzuak sortzen izan dira pista osoan, eta horrek galarazo egiten izan dau erabat jokoa. Itxiera



metaliko honi esker, batetik, ur gehiena barrura ez pasetea eta, bestetik, eguraldi txarra eginda bere, jolastu ahal izatea lortu dogu.

Lan honeen aurrekontua 15.850 eurokoa izan da.

# Kirolari bikainez beteriko herria

2015-2016 denboraldian lorpen garrantzitsuak egin dabez kirol taldeek

Gure herria berebizikiko kirolari eta kirol-talde apartaz beterik dago. Bakotxak bere maila eta arloan, urtero euren esfortzuaren emaitza diran lorpenak eskuratzen dabez. Aurten honeek dira irabazitako postu eta tituluak:

- **MUNGIA-BUTROI ESKUBALOI KIROL TALDEA:** sailkatuta bigarren kategoria nazionalera igoteko lehiaketarako.
- **MUNGIA SASKIBALOI TALDEA:** Tiro zehatzak sartzen dabezan jokalariok Gizonezko Senior kategoriatik lehen kategoria nazionalera egin dabe salto.
- **VALENTIN URIONA TXIRRINDULARI ALKARTEA:** Jon Barrenetxea txirrindulari gaztea Euskadiko Txapeldun izendatua izan da kadete mailan; eta Espainiako laugarren postua bere lortu dau.
- **MUNGIA RUGBY TALDEA:**Errugbilariek bigarren mailako Ohore Mailako hirugarren postua lortu dabe, lehenengo mailako igoera fasera heltzeko puntu batera, eta 9 izan dira Bizkaiko Selekzioan hautatutako jokalariak.
- **DANAK BAT PELOTAZALEEN ALKARTEA:** Euskadiko eskuz banakako klubetako txapeldunordeak eta Udaberri txapelketako narruzko paleta mailako irabazleak dira gure pelotariak.
- **MUNGIA IGERIKETA TALDEA:** Plentziako zeharkaldian, 1.500 eta 3.000 metrotan, 7 domina eskuratu dabez gure igerilaririk arinenak.

**ZORIONAK TXAPELDUNAK!**

## En esta temporada 2015-2016 nuestros grupos deportivos han logrado grandes victorias:

- Mungia-Butroi Eskubaloi Kirol Taldea: Clasificación para disputar la Fase de Ascenso a 2° Nacional.
- Mungia Saskibaloi Taldea: Ascenso del equipo Senior Masculino a 1° Nacional.
- Valentin Uriona Txirrindulari Alkartea: Jon Barrenetxea consigue ser Campeón de Euskadi en categoría Cadete y la cuarta posición en España.
- Mungia Rugby Taldea: Tercer puesto en División de Honor B (Segunda división) a un punto de acceder a la fase de ascenso a primera y 9 jugadores seleccionados con la selección de Bizkaia.
- Danak Bat Pelotazaleen Alkartea: Sub-campeón de Euskadi de clubs de mano individual y Campeones de paleta de cuero en torneo Udaberri.
- Mungia Igeriketa Taldea: 7 medallas en la travesía de Plentzia en 1500 y 3000 metros.

# Mungia prest dago Lore Jokoak jasotzeko!

Urtero lez, urria heltzean emozinoz beteten hasten da gure herria. Lore Jokoak laster ospatuko doguz eta hori prestatzeko lagun eta kuadrilla animatuak behar dira. Hori dala eta, jai honetan parte hartu gura daben guztiak pozik hartuko dira. Interesa daukienek helbide elektroniko honetara idatzi baino ez dabe egin behar: **astiune@astiune. com.** Animau zaiteze!

Aurtengo Lore Jokoen gai nagusia **Juan Jose Elorduigoitia mungiarra, indiano eskuzabala (1841-1910)**, izango da. Izen hori nahiko entzuna da gure herrian; izan bere, mungiar hau Argentinara joan zan arren, urteetan donazino ugari egin ebazan gure herriaren  alde, hau da, San Jose ospitale-asiloa eraikitzeko eta atontzeko, Berteizeko kanposantuko obretarako, beharrizana eukien herritarrentzat; eta, horren ganera, alboerrietako udaletxeetarako bere bai.

Mungiak ez dau berak egindako mesedea ahazten eta, horrexegaitik dauka bere izena herriko kale batek, Elorduigoitia kalea. 1905ean Udalak herriko seme kutun izendatu eban eta Berteizeko ortusantuan bere mungiar horren izenean eraikitako panteoi bat dago.


Juan Jose Elorduigoitia







Comienzan los preparativos de Lore Jokoak y quienes deseen participar en ellos son bienvenidas y bienvenidos. Para ello, no tienen más que escribir al correo **astiune@astiune.com.**

Este año la fiesta girará en torno a la figura de Juan **Jose Elorduigoitia, indiano eskuzabala  (1841-1910).** Este mungiarra que emigró a Argentina nunca olvidó su pueblo y durante años donó una considerable cantidad de dinero para dotar a Mungia de infraestructuras sociales. Igualmente, el pueblo no se olvida de él, por lo que una de sus calles lleva su apellido; fue declarado hijo predilecto y le fue asignado un panteón en el cementerio de Berteiz.

MUNGIA
UDALA
**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika,  1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / harrera@mungia.org / www.mungia.org
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI-2224/2012
Mungin geure ikurrek